

## **EUSKAL ZUZENBIDE ZIBILAREN BATZORDEAREN 2018. URTERAKO JARDUERA-PLANAREN PROPOSAMENA**

### **1. AURKEZPENA**

2015eko urriaren 3an jarri zen indarrean 5/2015 Legea, ekainaren 25ekoa, Euskal Zuzenbide Zibilari buruzkoa, eta hain zuzen ere, haren lehenengo xedapen gehigarrian xedatzen da Euskal Zuzenbide Zibilaren Batzordea sortzea. Kontsulta-organo gisa sortzen da, Euskal Zuzenbide Zibila garatzeko eta Eusko Jaurlaritzari eta Legebiltzarrari arlo horretan aholkularitza eskaintzeko xedez, baita arlo horretan lege-berrikuntzak eta aldaketak proposatzeko xedez ere.

2016ko urriaren 10ean jarri zen indarrean, bestalde, 140/2016 Dekretua, urriaren 4koa, Zuzenbide Zibilaren Batzordearen Estatutuak onartzekoa, egun horretan bertan argitaratu baitzen Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian. Gero, erakunde eta organo egokiek bidezkozkat jotzen zituzten proposamenak egin ostean, 2017ko urriaren 4an (asteazkena) argitaratu zen Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian urte horretako irailaren 22ko Agindua, Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuarena, Euskal Zuzenbide Zibilaren Batzordeko kideak izendatzen dituen, Batzordeburua den aldetik.

Aipatu Estatutuen 11.3.d) artikuluan aurreikusitakoaren arabera, Batzordeko Idazkaritza Nagusiari dagokio: *“Osoko bilkuran eztabaidatzeko eta Lehendakaritzak agindutakoari jarraituz, Lehendakaritzak osoko bilkuran eztabaidatu ondoren onartu behar dituen Batzordearen jarduera-planaren eta urteko ekintzen proposamenak prestatzea”*. *Jarduera-plana*, beraz, Batzordearen plangintza-tresna da, eta, bertan jasotzen dira, eskuragarri dauden baliabideen arabera, kasuan kasuko urtean egin beharreko jarduerak, bere helburuak lortzeko. Bertan deskribatzen dira, era berean, Batzordearen funtzioak betetzeko eta helburuak lortzeko gauzatuko diren jarduerak, bai eta, hala badagokio, horien betearazpen-maila zenbatetsi ahal izateko adierazleak ere.

Agindu horri jarraikiz, agiri honen xedea da Euskal Zuzenbide Zibilaren Batzordeak 2018. urtean zehar egin ditzakeen jardueren eta programazioaren hasierako proposamena egitea, esleitu zaizkion funtzioekin bat. Helburu nagusia Batzordea martxan jartzea (oraindik ez baita formalki eratu), organoen funtzionamendua antolatzea eta beren lanei hasiera ematea izango da.

Eta, hori guztia, Estatutuen 9.d) eta 7.f) artikuluetan (hurrenez hurren) xedatutakoaren arabera, osoko bilkurak, Batzordea eratzeko bileran, aukera izan dezan *“Batzordearen urteko jarduera-planaren lerro orokorrak ezagutu eta eztabaidatzeko”*, eta, eztabaida horren ondoren, Lehendakaritzak formalki onar dezan.

## 2. PROPOSATUTAKO JARDUERAK

Batzordea honako organo hauek osatzen dute, Estatutuen 6., 11., eta 12. artikuluetan ezarritakoaren arabera funtziona dezan:

- a) Lehendakaritza.
- b) Osoko Bilkura.
- c) Idazkaritza Nagusia. Azken hori arduratuko da beharrezko administrazio-zerbitzuak emateaz. Zuzenbide zibilaren gaineko eskumena duen sailera atxikitako langileek emango dituzte zerbitzu horiek. Idazkaritza horren zuzendaritzapean Batzorde Tekniko bat eratuko da, lana modu iraunkorrean beteko duena.

Antolaketa horrekin, Euskal Zuzenbide Zibilari buruzko Legearen (ekainaren 25eko 5/2015 Legearen) lehenengo xedapen gehigarriak emandako misioarekin bat etorrita eta Batzordearen Estatutuen 5. artikuluan deskribatutako funtzioen ordena jarraituz, plan-proposamen honen ardatzak honako hauek izango dira:

### a) Indarrean dagoen zuzenbidea berrikusi, ikertu eta aztertzea

Estatutuen 9.f) artikulua honako funtzio hauek esleitzen dizkio Batzordeko Osoko Bilkurari, besteak beste: *“indarrean dagoen zuzenbidea sistematikoki aztertu eta berrikustea, barne hartuta, idatzizko arauetz gain, ohiturazko zuzenbidea eta Euskal Zuzenbide Zibilaren jatorrian dauden printzipio orokorretatik datorrena jakinaraztea eta hedatzea, zuzenbide horren aplikazioa errazteko eta haren garapenaren euskarri izan beharko diren oinarriak eta konexio-puntuak ezartzeko xedez”*.

Gaiaren gainean oraintsu egondako aldaketa garrantzitsuak kontuan hartuta, Lehendakaritzaren oniritziarekin, Idazkaritza Nagusiak Euskal Zuzenbide Zibilaren egoerari eta ebaluazioari buruzko ikerketa bat egiteko asmoa du.

Ikerketa honen helburua da lehen hurbilketa bat egin ahal izatea, Euskal Zuzenbide Zibilaren abiapuntua zein den baloratzeko, bere garapenerako funtsezkoa den une honetan, Euskal Zuzenbide Zibilari buruzko Legea (5/2015 Legea, ekainaren 25ekoa) eta oraintsu bere garapen-ildotik jorratu diren gainerako legeak indarrean jarri direnetik izandako esperientzia praktikoan oinarrituta. Eta, horrela, Batzordean sor daitezkeen hausnarketak eta eztabaidak elikatzea.

Batzordearen osaerak berak ikuspegi anitzak jasotzeko eta ezagutza sakona izateko aukera baliatuz, eta bere kideen laguntzarekin, Euskal Autonomia Erkidegoan zuzenbide pribatuaren munduko eragile eta aktore nagusien ordezkari eta aditu diren aldetik, ikerketa hori osatu beharko da Batzorde Teknikoak egin behar duen lanaren bidez, 13.c) artikulua arabera: *“Arauen gaineko ebaluazioak egitea, besteren artean praktika zibil eta judizialaren eraginaren eta errealitatearen gaineko datu estatistikoak bilduz, Euskal Estatistika Erakundera eta antzeko erakundeen laguntzarekin, bai eta notarioen estatistiken eta estatistiketarako eta analisiak egiteko Justizia Administrazioak eta Botere Judizialak dituen tresna eta baliabideen laguntzarekin”*.

Idazkaritza Nagusi honen asmoa da inkesta horren lehen emaitzak ahal bezain pronto izan eta Batzordeko kideekin elkarbanatu ahal izatea, horixe izango baita testuingururik onena “*urteko jarduera-plana*”-ren gauzaperen egokienaren jarraipena egiteko.

## **b) Euskal zuzenbide zibilaren garapena sustatzea**

Batzordearen xedea denez indarreko xedapenak finkatu, harmonizatu eta sinplifikatzea, bai eta EAEko legedia gizartean unean-unean bizi den errealitatera egokitzea ere, lehentasunezko helburu hau planteatu da. Hori horrela, 2018. urtean zehar arauaren bi arau-zirriborro egiteko lanak hasiko dira, gero legearen aurreproiektu gisa izapidetu daitezten:

- Euskal zuzenbide zibilaren gaineko kasazio-errekurtsoaren legearen aurreproiektua. Horren helburu nagusia izango da errekurtso horretara zenbateko bidez sartzeko ataria nabarmen murriztea, eta eskubide horren beraren ondoriozko beste kasu batzuk ezartzea, berriz orekatu dadin Euskal Autonomia Erkidegoko Justiziako Auzitegi Goreneko Arlo Zibileko Salak gai zibiletan duen lan-karga eskasa, eta, hala, euskal zuzenbide zibileko jurisprudentzia-corpora osatzen duten epaien maila handitu dadin, indarreko xedapenak finkatu eta harmonizatzeko mekanismo nagusi gisa.
- Euskal Zuzenbide Zibila finkatu eta integratzeko legearen aurreproiektua (2/2003, 3/2005, 5/2015, 7/2015 eta 11/2016 legeen aldaketak, horien koordinazioa eta eguneraketa hobetzeko). Azken horren helburu nagusia da legegintza-mailako esku-hartze bat jorratzea, zuzenbide zibilaren gainean egon diren lege-berrikuntzen ondorioz sortutako aldaketak finkatzeko, eta, horretarako, arau horiek hobetu, koordinatu eta beren artean koherentzia ezartzea, behin-behineko zuzenbideko oharrak sartzeko, eta agindu jakin batzuk konstituzio-jurisprudentzia berrienera egokitzea.

Zirriborro horiek idazteaz Batzorde Teknikoa arduratuko da, hura baita “*araugintza-testuen aurreproiektuak eta proposamenak prestatu eta idazteaz*” arduratzen dena, Estatutuen 13.a) artikuluan ezarritakoaren arabera. Beti ere, 12. artikuluan aurrikusten denez, laguntzeko prest dauden eta ezagutza berezia izan dezaketen kideen edo, behar izatekotan, atxikitako laguntzaileen kanpotiko laguntza baliatzeko aukerarekin.

Era berean, eta aurreko lanak egin bitartean, Idazkaritza Nagusiak berariaz sustatuko du Batzordeko kideek Estatutuek aitortzen dieten ekimena baliatuko dutela, Estatutuen 10.1.c) artikuluan aurreikusitakoaren arabera, mozio berriak aurkez daitezten, Batzorde Teknikoari antolamendu juridikoa aldatzeko proposamenak prestatzeko eska dakion, baldin eta proposamen horiek, Sailak berak planteatu ahal dituenekin batera, etorkizunean zuzenbide zibilaren gaineko eskumena duen sailaren titularrari igorri behar zaizkiola uste bada.

### **c) Estatuko eta Europako araudi-esparruan zaintzako eta alerta goiztiarreko lanak egitea**

Batzordeak, bai bere kideen bidez, horien eta Idazkaritzaren artean komunikazio-kate errazak ezarriko baitira, bai Batzorde Teknikoaren bidez, hura baita Osoko Bilkuraren zerbitzura lan iraunkorra egiteaz arduratuko den eta funtsean Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko sailtako aholkularitza juridikoen eta zerbitzu juridiko zentralen letradunek eratuko duten organoa, zaindu egingo du Euskal Zuzenbide Zibilean araututako erakundeei eragin diezaiekeen arau-proiekturik irteten den, eta Lehendakaritzari egon daitezkeen aldaketa eta proiektuen berri eman beharko dio.

Halaber, Batzordea, organo horien bidez, Eusko Jaurlaritzaren eta Eusko Legebiltzarraren esku egongo da, edozein aholku-eskari egiten badute erantzun egokia emateko, Estatutik edo Europatik legegintza- edo araugintza-prozeduren tramitazioa dela-eta kontsultak egiten dizkiotenean.

### **d) Batzordearen beste funtzio batzuk**

Batzordearen funtzioen artean sartzen da zuzentasun teknikoa eta hizkera juridikoaren eta estiloaren argitasuna sustatzea, hizkera inklusiboaren erabilera barne, eta, era berean, euskararen erabilera sustatuko da Euskal Zuzenbide Zibilaren adierazpen hizkuntza legez eta bere terminologia juridikoaren azterketa, bultzada eta zabalkundea egingo da, Europan eta Estatuan oro har onartzen diren erregulazio onaren printzipioak bermatuta.

Horren harira, aurreko atalean adierazitakoaren arabera, Batzordea Eusko Legebiltzarraren eta Eusko Jaurlaritzaren esku egongo da, gai horien gainean egin ditzaketen aholku-eskeei erantzuteko. Edonola ere, Batzordearen lanetan eta egiten dituen arau-zirriborro edo -proiektuetan kontuan hartuko da.

### **e) Batzordearen jarduera propioak antolatu eta kudeatzea**

Goian aipatutakoez gain, Estatutuetan honako zeregin hauek ere esleitzen zaizkio Batzordeari, eta, horren barruan, zehazki, Idazkaritza Nagusiari:

- 4. eta 11.3.b) artikuluen arabera, Idazkaritza Nagusi honek koordinatu beharko ditu Batzordearen kanpo-harremanak eta erakunde-harremanak. Hau da, besteak beste, lankidetzatresnak formalizatzea bultzatu eta sustatuko du Batzordearen antzeko izaera duten Zuzenbide Zibilean espezializatutako edo kodetzearen arloko beste aholku-organok batzuekin, Espainian zein Europan edo nazioartean. Xedea izango da esperientzien trukea bultzatzea, elkarren jardunbide egokiak ezagutzea eta tresna praktiko edo informatikoak garatzea, edo interes komunekin gaitan beste lankidetzatarlo batzuk garatzea.

Horretarako, dagoeneko harremanetan dago Kataluniako Comissió de Codificació eta Observatori de Dret Privat izenekoekin, bai eta Comissió Aragonesa de Derecho Civil delakoarekin ere. Halaber, Comissió General de Codificación deitutakoarekin ere harremanak ezarri nahi dira.

2018an zehar, elkarrekiko ezagutza eta harreman horiek sakondu nahi dira, batez ere jardunbide onen eta elkarrekiko esperientziaren arloan, ezinbesteko abiapuntua baita lankidetzatresna zehatzak formalizatzeko aukera planteatu ahal izateko.

- Estatutuen 11.3.j) artikuluan ezarritakoari jarraikiz, Euskadiko Zuzenbide Pribatuari buruzko funts dokumental eta bibliografikoaren sorrera gainbegiratu behar da. Horren harira, dagoeneko hasi dira Eusko Jaurlaritzako Zerbitzu Juridiko Nagusiko Liburutegiaren eta Lege Garapen eta Arau Kontrolerako Zuzendaritzaren arteko koordinazio-lanak, beren funts propioetan nahiz Eusko Jaurlaritzako Liburutegi Nagusian gai horren gainean eskuragarri dauden aleak identifikatu eta katalogatzeko.

Horrez gain, Lege Garapen eta Arau Kontrolerako Zuzendaritzak horretarako eskura duen aurrekontuen kargura, bereziki garrantzitsutzat jotzen diren obrak eskuratu nahi dira, Batzordeko kideek egindako iradokizunen arabera, eta erakundeek eta horietan ordezkaturako organoek lanak dohaintzan eman ditzatela sustatzeko ahalegina egin nahi da.

Euskal Zuzenbide Zibilaren Batzordeko Idazkaritza Nagusia

Vitoria-Gasteiz, 2017ko azaroa.